

Tubacex eta Aceralavako enpresa-batzordea

Komunikabide ezberdinetan agertutako albisteen ondoren, TUBACEX-ACERALAVako enpresa-batzordeak honako argipen hauek egin nahi ditu:

- Enpresak helarazi digun informazioa ez da benetakoa, datu ekonomikoak guztiz puztuta daude eta honen erakusgarri, aipatzea badirela 1.000 eurotako soldadetara heltzen ez diren ingeniariak, eta gutxi baliz, “borondatez” soldata %10 eta %30 artean jaistea eskatzen digute.
- ABEEEaren kontsulten aldia tramite hutsa izan da, eta enpresaren jarrera aldaezina izan da. Alde sozialak 3 proposamen ezberdin egin ditu, eta enpresak azkena ez du entzun ere nahi izan.
- Instituzio publikoei gogora arazi nahi diegu TUBACEXek a 15 miliio eurotako irabaziak izan dituela, eta hainbat milioitako bonusak banatu dituela zuzendaritzako kideen artean ABEEEa aurkeztu aurretik. Administrazio kontseiluak, bere aldetik, 2019an ia 5 miliio euro jaso zituen (dieta eta bonusak kenduta).
- Beste behin ikusten dugu nola erabiltzen dituen komunikabideak enpresa honen zuzendaritzak gure auzokideak gure aurka jartzeko helburuarekin.
- Finean, TUBACEXen zuzendaritzak bilatzen duena da osasun krisialdi batez baliatzea negozioa egiteko, langileen eta gizartearen kontura, enpresa-batzordeak etorkizuneko enplegua ere bermatzen ez duen ABEEE bat babestea bilatuz.
- Bai egia da, TUBACEXeko enpresa-batzordeak ez du estrategia hau babestu. Administrazioak babestuko duen jakitea baino ez da falta orain.

